



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

2022ko martxoaren 22an, eguerdiko 12:30ean, egindako eta honako pertsona hauek osatutako Bozeramaileen Batzordeak:

La Junta de Portavoces, en reunión celebrada el 22 de marzo de 2022 a las 12:30 horas y con la presencia de:

Jon Iraola  
Ana Telleria  
Josu Mendicute  
Gorka Errasti  
Isabel Fernández

Jon Iraola  
Ana Telleria  
Josu Mendicute  
Gorka Errasti  
Isabel Fernández

Honako akordio hauek hartu zituen:

Adoptó los siguientes acuerdos:

Gai-ordenean jasotako puntuak lantzen hasi aurretik, Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldearen bozeramaileak proposatu du hileroko Bozeramaileen Batzordea ordu erdiz aurreratzea, hau da, 11:00etan. Gainontzeko bozeramaileek proposamena aztertu ostean, denek adierazi dute ados dadudela aldaketarekin eta, ondorioz, adostu da ohiko osoko bilkuren aurreko astearteetan egiten den Bozeramaileen Batzordea 11:00etarako deituko dela.

Antes de comenzar a tratar los puntos recogidos en el orden del día, la portavoz de Elkarrekin-Podemos Eibar propone que el horario de la Junta de Portavoces mensual se adelante media hora, esto es, se celebre a partir de las 11:00. Analizada esta propuesta entre el resto de portavoces, todos/as muestran su conformidad con el cambio, por lo que se acuerda que la sesión de la Junta de Portavoces que se celebra los martes previos al pleno ordinario municipal se convocará para las 11:00 horas.

**1.- Eibarko EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa garraio publiko guztietan tarifa bateratua ezartzeari buruz.**

**1.- Moción presentada por el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV, relativa a la implantación de una tarifa unificada en todo el transporte público.**

Plenora eramatea erabaki da, eta Eibarko PSE-EE udal taldearen bozeramaileak iragarri du mozio alternatiboa aurkeztuko duela.

Decide llevarla a Pleno, y la portavoz del grupo municipal PSE-EE de Eibar anuncia que presentará una moción alternativa.



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

### **2.- Eibarko Pentsiodunen Asanbladak aurkeztutako mozioa pertsona nagusiei eta pentsiodunei bankuetan egiten dituzten tramiteetara sarbidea errazteko.**

Edukia aztertu ostean, ondorioztatu da Eibarko Pentsiodunen Mahaiak 2021 urteko apirilaren 16an erregistratutako testuaren oso antzekoa dela, eta baita udal talde guztiek otsailean onartutako testuarena ere, non pertsona nagusiek eta egoera zaugarrian dauden pertsonak zerbitzu batzuetara sarbidea izan dezaten hauen hobekuntza eskatzen zen.

Hori dela-eta, Eibarko PSE-EE eta Eibarko EAJ-PNV udal taldeek mozioa mahai gainean uzteko planteamendua egin dute, eta hau aurkeztu duen Plataformarekin harremanetan jarriko da, mozioaren edukia errepikakorrak ez diren alderdietan oinarritzeko eskatuz.

### **3.- Eibarko PSE-EE eta Eibarko EAJ-PNV udal taldeek aurkeztutako mozioa, Putinen Ukrainako inbasioa gaitzesteko.**

Plenora ez eramatea erabaki da. Eibarko EH-Bildu udal taldeko bozeramaileak jakinarazi du bozeramaile guztiei bidaliko diela gai horren inguruan Errenteriako Udalak onartu duen mozioa.

Horrela, martoxaren 28ko arratsaldeko 15:00ak arteko epea eman da, udal talde guztiak akordio batera irits daitezen eta, ondorioz, adierazpen instituzional bat onar dezaten. Akordiorik egongo ez balitz, ondorioztatu da Eibarko PSE-EE eta Eibarko

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

### **2.- Moción presentada por la Asamblea de Pensionistas de Eibar para facilitar el acceso de las personas mayores y pensionistas a los servicios bancarios.**

Tras analizar el contenido, se concluye que es muy similar al planteado ya por la Mesa de Pensionistas de Eibar en la moción registrada con fecha de 16 de abril de 2021, así como al texto suscrito por todos los grupos en febrero, relativo a la mejora de los servicios para el acceso de personas mayores o en situación de vulnerabilidad.

Por ello, los grupos municipales PSE-EE de Eibar y Eibarko EAJ-PNV hacen un planteamiento consistente en dejar la moción sobre la mesa, con el compromiso de contactar con la Plataforma proponente de la misma, a fin de que centre el contenido de la moción en aquellos aspectos que nos son reiterativos respecto de lo anterior.

### **3.- Moción presentada por los grupos municipales PSE-EE de Eibar y Eibarko EAJ-PNV, condenando la invasión de Ucrania por parte de Putin.**

Se acuerda no llevarla a Pleno. El portavoz del grupo municipal EH-Bildu de Eibar informa de que va a remitir a todos/as los/as portavoces la moción que sobre esa cuestión ha aprobado el Ayuntamiento de Rentería.

Así, se ha dado de plazo hasta el lunes, 28 de marzo, a las 15:00 horas, para que todos los grupos alcancen un acuerdo y, por consiguiente, se apruebe una declaración institucional. En caso de no alcanzarse un acuerdo, se concluye que se daría por



## BOZERAMAILEEN BATZORDEAREN AKTA

EAJ-PNV udal taldeek aurkeztutako testua onartutzat emango dela.

Gai-zerrendan jasotako puntuez gain, Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldearen bozeramaileak galdetu du ea zergatik utzi dioten udal taldeek Udalaren Erregistro Orokorreara sarbidea izateari. Horren inguruan, adostu da alkateak txosten bat egiteko eskatuko diola udal idazkariari, non Erregistro Orokorreara sarbidea edukitzeko irizpideak aldatzearen arrazoiak azalduko dituen.

Bestalde, Fernández andreak jakinarazi du ikusi duela Deloitte enpresari faktura bat ordaindu zaiola Errebal eraikinaren -2 solairuko garajeetako emakideei ezarri beharreko BEZaren inguruan egindako txostenagatik. Alkateak jakinarazi du aipatutako dokumentua ez dela oraindik behin betikoa eta, jaso bezain laster, irakurri ahalko duela.

Azkenik, Elkarrekin-Podemos Eibar udal taldeko bozeramaileak jakinarazi du mozio bat aurkeztu duela Saharako herriari babesa erakusteko, eta adierazi du adierazpen instituzional moduan landu beharko litzatekeela. Horregatik, iragarri du testua bozeramaileei helaraziko diela, aztertu dezaten eta dagokion erabakia har dadin.

Eta eguerdiko 13:20ak izanik eta gainerako gairik ez dagoenez, Alkateak bilerari amaiera eman dio.

## ACTA DE JUNTA DE PORTAVOCES

aprobado el texto presentado por el PSE-EE de Eibar y Eibarko EAJ-PNV.

Fuera de los puntos del orden del día, la portavoz de Elkarrekin-Podemos Eibar ha preguntado por qué los grupos municipales han dejado de tener acceso al Registro General del Ayuntamiento. A ese respecto, se acuerda que el alcalde solicitará al secretario municipal la elaboración de un informe en el que explique los motivos por los que se han modificado los criterios de acceso al Registro General.

Por otro lado, la Sra. Fernández ha comunicado que ha visto que se ha abonado una factura a la empresa Deloitte, por un informe relativo al IVA a aplicar a las concesiones de los garajes sitios en la planta -2 de Errebal. El alcalde ha informado que el documento al que hace alusión no es definitivo y que, en cuanto se disponga de él, podrá consultarlo.

Por último, la portavoz de Elkarrekin-Podemos Eibar ha informado de que ha presentado una moción para el apoyo al pueblo Saharaui, y afirma que debería tratarse como declaración institucional. Por ello, anuncia que la compartirá entre los/as portavoces para su análisis y la toma de la correspondiente decisión.

Y siendo las 13:20 horas, y no habiendo más asuntos que tratar, el Alcalde levanta la sesión.